

BLAS: ALEETIA "ANA MARI"



MISIOLAKO ANTZERKIA



N - 22995 R 12944

STN 691

AÑA MARI



IRUÑAN

“Euskeraren Adiskideak,,
aurtengo antzerki batzaldian
saritua

1 9 2 8

Iruñan, Gartzia E. Alargunaren irarkolan

Sarasate, 15 - ean

Nihil obstat
MICHAEL DE INTXAURRONDO
Censor

Imprimatur
Pamplona, 9 Augusti 1926
† **THOMAS, Episcopus Pampilonensis**

BANAKETA

Joxe Martin	Baratzeŕekalde'ko nagusia
Katxaliñ	Joxe Martiñen emaztea
Aña Mari	Umezurtza. Baratzeŕekalden bizi da
Iñasi ta Maritxu	Aizpak, neska baseritaŕak
Patxi	Joxe M. eta Kat. ^{en} seme gaztea
Joxetxo	Joxe M. eta Kat. ^{en} seme zaŕena
Aita Baratz	Pralea—Joxetxo da—
Kontxesi	Moja
Ana Mari	Moja
Satur	Aita Baratzen mutila



183X/14/8

THE

THE

THE

THE

THE

THE

THE


THE

THE

THE

THE

THE



AÑA MARI

LENBIZIKO EKITALDIA

(Ezkeretara, *Baratzeekalde*, haseria. Erdian, leio luzea. Agirian koñua edo eskalera, lenbiziko egotokira ate txikia duala. Ate nagusia beian. Ezkerfeko egaletik bide medaia, atzekotara ziartuz. Eskubitara, gurdi bidia. Belar zama beñiak an da emen. Aurfeko aldetik lizar da intxaur ondo zabalak. Inguruak laie, ta atzetik mendi tonfoiak).



LENBIZIKO AGEĀLDIA

(Joxe Martin, etxeko
nagusia, mauk-utsetan,
lenengo malan jafi-ta,
pipa belafez betetzen).

Jox. M.

Oraintxe pipalditxo bat ez dek etofiko gaizki.
Baña lendik, eztafi zuloa leuntzeko bederik, zu-
fuztako bat edo bi, obeki.

Ez, ba, txarki bazkalduak gaudela-ta....
(Deituz)

¡¡Katzalin!!

(Gora begira)

Or zeok. ¡¡Eguerdiko artatik pixka bat eta zatua
jetxil!!

¡¡Au dek, au, sasoi!!

Arkume iztar bati otzak kentzeko, ez beintzat
beldurik.

(Bersolarien antzera
abestuz).

«Umore ona, artalde edera

Lafe ta soro bikañak,

Etxe galant, alai ta argia,

Ama semeak, azkarak,

Aize epelak

Osagafiak ugari.

Lafe loretan txori alaiak,

Txori politak kantari.»

Nai duenak nai duena dezala.
¡Or konpon!
Baña, lengo koplariak bezala
Diot nik, iñor ez dala bizi iñon,
Basuan baseritaña bezin on.
Soseguan bizi da ta ez da eřegerik
Ez prinze, ez aberats, ain ongi denik.

BIGAREN AGERALDIA

Kat.

(Joxe Martiñen emaztea, ate nagusitik).
Emen al ziñen, Joxe Martin?

Jox. M.

Aña Marik, bai ta bai, atsedeen alditxoan artzera
etortzeko-ta... ¡Alako eguna ere dago!

Katx.

¡Gaixua! Izango du berak ere premia...

Jox. M.

Ez det nik alakorik ikusi. Arildeia (devanadera)
baño geigo, ez da gelditzen ařenik.

Katx.

¡Azkaña dala ta alaxe!

Jox. M.

Uřezkoa da, Katxalin.

Katx.

Uře gořizkoa. Guk bear bezelako emakumiea.
¡Ene gozua! Noizpait guregandik aldegin deza-

kelako gogorazio utsak izer gaitza ematen dit.
Baldin bez ere.... ¡Gure Jaun aundi afek!

Jox. M.

Zu beti batian zaude, Katxalin.

Jox. M.

Ta nola ez, Joxe Martin? Patxik ala guk, non topatu au bezelakorik?

Jox. M.

Efáz, ez. Baña...

Katx.

Ez du, bada, itxura txarik.

Jox. M.

Itxuraz ez gaude gaizki.

Katx.

Gauzak itxura bear dute, ba, lendabizi.

Jox. M.

Bost ari zara ofekin!

Katx.

Atoz onuntz, tenkor ori! Alaba asko ezagutzen al dituzu, eren gurasoak, Aña Marik, zu ta ni baño geigo, maite dituztenak?...

Jox. M.

¡Ofatx, au! Eta zuk, Katxalin, ainbeste ezagutzen al dituzu, eren alabak, nik Aña Mari baño geigo, gurea ez izanafen, maite dituztenak? Ez nik beinzat!

Katx.

¡Argatik, ba, Joxe Martin! Guk nai izan ez-keroz...

Jox. M.

¡Ai, zu, Usokumia! Zer dala-ta? Gu bezin efa-zak dirala, uste al dezu danak? Ongi aski oroitzen naiz. «¡Motel! *Urdanozko* Martolo emen agertu dek. Betiko ez gaudela ta semea etxerako nai due la egin. Artarako, alaba lenbizi etxalde on batean, lenbailen nai lukela sartu. Ez dala Sakan (*Barranca*) guzian afentzat, ez, au bezelako etxerik, ez ta i bezelako mutilik.

Esan zioat egiña daola gure aldetik. Ta orain ortxe ikusi! Azkar ibili ta... befiketa gutxi!»

Gaur bezela ori esan zidanen aitag eta, ufengo igandetik *Urdanozko* alaba, Joxe Martiñen andre gai uan.

Katx.

Eta bi ilabete baño len, emazte.

Jox. M.

¡Bai, apika! *Baratzeñekaldeko* etxekoandre gazte. ¡Ze zozuak, gero ere, *Urdanozkoak*!

Katx.

¡Ja, jaaa!... Oni begira! Damu dezu edo?... Garaiz zabilza, gizaju ori!...

Jox. M.

Koplari zaude, Katxalin.

Katx.

Zuk befiz, ala nai, Joxe Martin.

Jox. M.

¡Ori, ori! Ze ařano! Kezkak... diabruentzat.
¿Nun da zatua? (Zatua artu-ta, glu, glu, glu). ¡Au dek,
au, matsaren opotik datofen, mama goxua!

Katx.

¡Ofela ba-giřa beti!

Jox. M.

¡Ondo giřake, Katxalin!
¡Amaika aldiz entzun diot kopla ori!

Katx.

—Nori?

Jox. M.

Patxikori.

Bařa Patxikok azkeneko itza aldatu-ta Katxali-
řen ordez beste izen bat eantsi dio koplari. Ondo
giřake *Katxalin*, esan beařean ondo giřake *Ařa
Mari*.

Katx.

¡Ořa, ba! Befiz ere esango det.... Patxi burutik
ořetara zure irudi bizia da. Ta, Ařa Mari, berdin.
Txikitatikan, bakar bakařik, iřortxo gabe, emen
řkasi zuen *ait-amaren* izen gozuak aipatzen.

Jox. M.

Bai ta guk ere, alabik ez-ta, eztitsu eztitsu,
alabatxua esaten.

Katx.

¡Ez litzake biziko gu gabe! Gure begitatie ez bada, jez paitu gaxu ofek ikusten!

Jox. M.

Ez guk ere!...

Katx.

Danak, denetan berdintsu.

Jox. M.

¡Ez oixe! Denetan ez, Katxalin. Barkatu zaidazu, baña, etziñan zu Aña Mari bezin leuna, aiñ edera, aiñ galanta, aiñ....

Katx.

Eztia, esan naiko dezu.

Jox. M.

¡Zuk bai aztatuko! Ala aztatuko ba-zendu, esku tartean daukagun, juan etori ortan!...

Katx.

Ez dezu ikusten zeñen poliki *alkar aditzen duten?*

Jox. M.

Bai baña....

Katx.

Laister ikusiko. Seme zafena apez egitekoa da ta orduan erabaki bear da. Neretzat agirian dago. ¿Nor gu bezala?

Nun da nere gogua, anda nere zangua, ibili besterik ez daukagu.

Jox. M.

Ala ba-litz! (Zuti, bide mear aldetik).

Katx.

(Zuti). Bai, Joxe Martin. Neri siñetsi. Patxi ta Aña Mari alkafenganâko jaioak dira.

Patxi ta Aña Mari: oiek izan bear dute

*Baratzerekaldeko eguzkia;
Gure baseñiko zeru argia;
Gure zartzaroko epelgaña;
Negu azkenerako, uda befia.*

Jox. M.

¡Ixo! Iñasi ta Maritxu emen dira.

Katx.

Aña Mariin lagunak; onak eta zintzuak!...
(Deituz) ¡Ots, bada, ots! Pestak badijuaz eta....

IRUGAÑEN AGEÁLDIA

(Lengoak. Iñasi ta Maritxu, neska baseritarak, jai jantzian).

Jox. M.

¡Ez gera guziok berdin bizi!

Maritx.

¡Andre Katxalin!

Iñax.

¡Joxe Martin!

Maritx.

Pest irugafena-ta, lanian?...

Jox. M.

Argatik diot, Maritxu, ez gerala guziok berdin bizi.

Iñax.

Danak ongi?

Jox. M.

Ongi danak.

Katx.

Zuek ere bai, agiri denez?

Jox. M.

Ze, ta biok bakarik?

Iñax.

Onuntzaño bai. ¿Ta Aña Mari?

Maritx.

¿Eta Patxi?

Katx.

Aña Mari laixter emen da.

Iñax.

Eñan Patxi?

Katx.

¡Jakiña!

Jox. M.

Bai; zafak lan, ta....

Katx.

Gaztiak jan.

Iñax.

Gogo txar!... ¡Ja, jaaa!... ¡Au Joxe Martin!

Maritx.

¡Au Katxaliñ! ¡Umore onian beti!

Jox. M.

¡Umore ona guk! ¡Ona bizi!

¡Ai, aña! Inon diranak entzun bear ditu batek.

Danok.

Ja, jaaaa....a!

Iñax.

Nork eragozten ote dio? Utzi belar-eta, betor gukin.

Maritx.

¡Ori, ori! Bai ta beori ere, andre Katxalin.

Katx.

Baaai. ¡Ni bezalako baten beara legoke antxe!

Maritx.

Beoren larupean nai lukete egon batzu-batzuk.

Jox. M.

¡Afaiena! Zuek bezalako bi lagun eramateagatik ere!

Katx.

¡Begira ori! ¡Oren sasoiari!

Iñax.

Irugaíena, non du?

Maritx.

Obeen obeena utzi du, Joxe Martin.

Jox. M.

¿Aña Mari, edo?

Iñax.

Ez; ona. ¿Nor, ba?

Katx.

Iruok, zein baño zein obeak!

Jox. M.

Ez du gaur pestarako... alako gogorik erakutsi.

Maritx.

Guziok ere.... ez genduke asko-asko galduko.

Katx.

Ez da geiagoko berokirik?

Maritx.

Gero, ta gutxiago: guk beintzat.

Jox. M.

¡Agur! /*Atsuak!* Artzai nijua, ta onuzkoan *muti* onentzat piper-opila ekari.

Maritx.

Onuzkoan ez baña, bertan. Piper-opil ponpo-xoenak beoientzat. (Ematen dio bat Joxe Martini, ta Katxalini, beste bat. Inasik ere bai).

Katx.

¡Oi, ene! Esketik asko!...

Jox. M.

¡Ori da, Maritxu! ¡Olahe, Iñaxi! Biguñ-biguñak, goxo-goxuak.... (Ozka egiten dio). ¡Onen ezti!

¡Orain bai nijuala pozik! ¡Agur ta ongi ibili Maritxu!

¡Agur, Iñaxi! (Bádjoa).

Iñax.

¡Agur, Joxe Martin!

Maritx.

¡Agur, ta umore on!

Jox. M.

Aña Mari or dezue. (Aldeegiten du).

Iñax.

¡¡Aña Mari!!

Maritx.

¡¡Aña Mari!!

Aña M.

(Ez ta ikusten: eldu da atzeko aldetik). ¡Oi, Iñaxi, Maritxu! Ortxe naiz. ¡Aitatxo! ¿Nora dioa?

Jox. M.

(Ikusten ez dala). Ardiatar, nere alaba.

Aña M.

Naí ba-du, nerau juango naiz.

Aña M.

Gero arte, ba.

Katx.

Zuen aitzekian, berak ere nai izango du eñira
juan. Baña... Aña Mari artarako ez da.

Maritx.

¡Oi, andre Katxalin! Ez daki beorék!

Iñax.

¡Ez du, ba, jakiñen!..

Katx.

¿Zer gerta da?

Maritx.

¡An ziran komeriyak, an!

Iñax.

!Ja, jaaaa...a!

Katx.

Izutzen naiz.

Iñax.

Ez du biderik izutzeko.

Maritx.

Pañagafia zan, Andre Katxalin.

Iñax.

¡Siñez pañagafi!.. Ja, jaaa...a!

LAUGAREN AGEALDIA

(Joxe Martin ez, beste gañerakoak eta Aña Mari; au neska galant eta leuna da, samura oso ta azkara; danak nasiz).

Aña M.

(Maritxu ta Iñasi besarkatu-ta). Umore txarrik ez da biñepin.

Maritx.

Ez, oraigoan beintzat!

Iñax.

Ederetakoa guk, Jainkoari eskerak!

Aña M.

¡Ala obe! Alaba esker gaistoko onek iges egin-da, zuek bederik, ia, amatxo alaitzen dezuen!

Katx.

¡Ene biotza! Zu esker gaistokoa? (Apa ematen dio).

Maritx.

(Esku mutur batetik Aña Mari artu-ta). Ia, ikusi!
(Parez) ¿Miñ artzen al dezu?

Aña M.

Nik ez miñik.

Iñax.

¡Bai ordea beste norbaitek! (Pafez). Juan bearko
dugu sendatu zitzaion edo ikustera.

Aña M.

¿Aditzen al du, ama? Ok nere bila datoz.

Katx.

Bâzuazke, Aña Mari. Emen egoteko beta dezu
noiz nai.

Aña M.

¿Ez da agertu Patxi?

Katx.

¿Etoftzeko al da?

Aña M.

¡Oien bila, noski!

Iñax.

Noiz nai ere garaia bâdu.

Aña M.

Soñekoa aldatzea nijoa, ta bitartean agertuko
da. (Etxera satzen da).

Iñax.

Bânekian etofiko zala!

Maritx.

Baldin bez!...

Iñax.

Pestako efegiña baita Aña Mari!

Katx.

Talo burnia ainbateko aoakin naukazue.

Iñax.

Ez gera afitzen, Katxalin.

Maritx.

Bi egun oitan, euliak eztira bezela etortzen
zaizkio mutilak an ta emendik.

Katx.

¿Ainbeste, ainbeste?

Maritx.

Danak atzetik... Danak afeekin dantzatu nai,
¡ain gozua da!...

Iñax.

Ain maitagari da!

Katx.

¡Nere atsegiña! Ta Aña Marik, ze?

Iñax.

Aña Marik, Katxalin, asko daki.

Maritx.

Danak ongi artu, ta guziei poliki poliki atzeaka
egin.

Iñax.

Guziei ez, ba. Ia, Patxikori?

Maritx.

¡Aixa! Patxikori?... Loxintxa guziak ofentzat!

Iñax.

Dantzaldi guziak, afeikin!

Katx.

(Gozaki, gozaki). Danak efesku?

Iñax.

Gu biokin egindako ez, beste guziak.

Maritx.

Efi guzia ai begira.

Iñax.

¡Ta, ez aspertzen!

Maritx.

Aspertu?... Donostitik etorritako Pili ta Lulu, ez dakit nungo, aien antzeko mutil panpafi itzon-tzi aikin palsian asi ez ba-lira... Oraindik an zeu-den!

Katx.

¿Palsian? ¿Lotu-ta?... Ori ere badeagu?... (Ziñatuz)
Ez da gauz onik!...

Iñax.

Aik nastu zuten pesta.

Katx.

Zifingil, lotsa gabeak.

Maritx.

¡Orduan, ba! Aietako kalpar aro batek, Aña Mari palsian dantzara aterazi nai ta Aña Marik uka. Eztabai artan arapatzen du mutilak beso

ondotik eta, Aña Marik ¡zarta!! ematen dio suak
eta gafak atera arterañoakua...

Bai utzi ere mutilak!...

Iñax.

¡Auro! ¡E! (Gurdi bidetik efi aldera begituz) ¡Ona
Patxi!

Katx.

(Txalo joaz). ¡Bejon dakiola! Bear danian, bear
da.

Ederki egiña! Ze uste zuan, ba?...

Maritx.

(Bide beretik). Donostiko buru ariñakin zebilela
edo!...

Bai, oiek berak ere!...

Katx.

¡Buuu!... Txoroak, alen txoroak! Burua ego
aitez bezela, sakela diruz ekañiko ba-lukete! Kai-
par motz, anka luze... poltsa zofotz!...

¡Donostira! Ta... ¿zertako oik Donostira?

Maritx.

Berak jakin bearko an, ze ta nola dabilztan!

Iñax.

Aien soñekoak bakarik...

Kondexak ba-lira ere!

Maritx.

Ta, lepoko zintziñak?... Ta oñetakoak?...

Ta, galtzak?...

Iñax.

¡Ori esan! Lafu gofia dan, ez ari mea den... ez da nabari.

Katx.

(Ariturik). ¡Je...su! Etxekoak, beriz, zer janik ez... Jaten duten piska... zořetan, ¡Nok esan!

Ez daukate lotsik, ez ta... apurik ere. (Patziko ikusten ba-lu bezala). Ta, ok nun zeuden?...

BOSKAĖEN AGEĖALDIA

(Lengoak eta Patxi.
Patxi Baratzefekalde-
ko seme gaztea da).

Patxi.

Pitxi politen bila ni uratzeko-ta... pitxi politenak emen! ¡Jakin ba-nu!...

Ařratsalde on, Jangoikoak dizutela. (Danak erantzun).

Maritx.

Zer beři da eřian, Patxiko?

Iñax.

Gauz onak an?

Patxik.

Emen gauz onak, emen!...
Ta Aña Mari?

Aña M.

(Efaz, baña ederki jantzirik, ate nagusitik). Zu noiz agertuko, Patxi.

Katx.

Zu gabe azartzen ez-ta!...

Patx.

Txori-kume, kabitik atera befiak bai dira! Atzo ikusi ba-lu, ama! Txori pitintxu au ikusi ba-lu atzo! (Aña Marigatik). Ken ari ortik, Uzkudun!-esango zuan. Ordek ortik, mutur zikiña! (Katxalin ez, besteak pafez).

Katx.

Bai; ez dut nik pafik egiten. Atsegin ona da-ta! Jesu, Jesu!

Aña Maril.. (Aña Marik aurpegia estaliko du lotsati). Zuazte, zuazte! Baña... ez gero ze esanik ekañi!

Patx.

¡Ez da beldurik!

Iñax.

Bâguaz; gero arte.

Maritx.

Agur, andre Katxalin.

Aña M.

Ilunabañian beriz emen gaituzu. Agur, amatxo.

Katx.

Agur, ene maitiok, agur. (Bâdijuaz).

(Katxalin bakafizketan).

Esango det nik beñiz ere... Ok, ez paitira pestak... nabarmenkeriak baizik...

Gure gazte denboran... Aik ziran egunak, aik. Añeneko egunetik mutilak agiñ adarak ekañi, ta neska ezkongaiantzat moltxoka polifak egin ondoren, poliki poliki jantzi, ta ufen goizian goiz, loretegi zuri gorien antzera atal goienian jartzen zituzten. Ardi ta arkume gizenenak il, ta mutilak aragiari, neskatzak tripakiari; aik, lafeñetan giefiñakin; oik, ibai bazterian lilaiakin; gizonak sua pistu, emakumeak tresnak prestu, ta pertzak garbitu; almiandia arietik, txuntxuna atzetik, umiak dantzan.... ¡Danak autzela! Pest egunian, *irifara*, bakoitza bere aldetik, aizpak eta anaiak, izebak eta osabak, lengusu ta ilobak, aide ta ezagunak, etxe bete-betian, guziak nasiz, danak alai eta pozik...

Orduko ingurutxo ta alkate dantzak... ¡Ikusgaiak siñez!

Nai zuten guzientzat ardua ugari ontzi polit zidefezkotan. Agintari ta buruzaiak leku egokian exeri-ta, patxaraz dantzariak begira. Mutila burutian; neskatzak lotsati, lotsati; jazkera eraza, baña txukun eta garbi... ¡Aik ziran dantzak!

Neska mutilak, alkar ez ikutzeko, surtzapi mē politen mutur bana artu-ta... Ez ola ¡boa! atzo, galde gorde gabeko aul aik bezela, lotu-ta... izañen antzera itsatsirik.... ¡Ni ba-nitz alkate!...

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY


THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY

THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY
THE 20th CENTURY



BIGAÑEN EKITALDIA

(*Baratzefekaldeko basetxea bafundik. Gela lu-
zea. Mai bat alde batean; gurutze aunditxo ga-
ñean. Aurrean leioa. Ate zabalak, ezker-eskubi-
tatik*).



LENBIZIKO AGEÁLDIA

(Aña Mari, Iñaxi ta
Maritxu garbiketan,
gelari azken eskua
ematen).

Aña M.

Oraintxe bai bazterak garbi. ¡Onela nai luke beti!

Iñax.

Aurpegia agiri dala.

Maritx.

¡Zaude, zaude! Apez serbitzari joaten zera-
nean...

Aña M.

¡Nork daki!

Iñax.

¡Ori, ori! Baratzefekaldeko etsekoandre gazte
izateaz...

Aña M.

¡Baita!... Ara beñiz au!

Iñax.

· Ori? Basakatuak ere bādakite-ta...

Aña M.

Nik baño geiago dakite, ba...

Iñax.

Au, erekaiñua, dabilena!... Garai onean... kukukuka!

Aña M.

Jaungoikoagatik, Iñaxi, ez ni geiago txoratzí.

Iñax.

Txoratua dagonak, txoratzen lanik ez...
¡Al obe! Ezkon afean txoratu egiten omen da ta...

Aña M.

Oratx ba, Iñasi, nik ez nekien ainbestekorik...

Maritx.

Ofen atsegiñ goxoa artzen dezu!...

Iñax.

Jakiña, ba!...

Maritx.

¿Zer naizu? Beti ao txulora begira dagokizula, entzun? Begiko niniak baño geiago maite zaituala?...

Aña M.

¿Zer, ba?...

Maritx.

¡Ja... jai! Polifagorik ez ba-leki Patxik esaten. Motela da-ta!...

Aña .M

(Leiotik begira). ¡Bádatoz, bádatoz!.... (Iñaxi ta Maritxu ere leiora).

Iñax.

¡Josu!... Andre Katxalin... bere lañuan ezin egon....

Maritx.

¡Oi, ene! Josetxo apez jantzian!.. Oñen agurgari!
Guazen bidera, Iñasi. (Badijuaz laixterka). Baguaz
Aña Mari.

Aña M.

Zuazte bai, mesedez. Pardalez josiak datoz;
nekatuak nonpait.

(Piska batez egon-da).

¡Au poza!...

¡Bâneukan gogua!...

(Leiotik kendu-ta).

¡Esker mila, jauna! ¡Esker mila!

Bádatorkit nik bear dutana.

Eldu zait, nere biotzeko txoko ilunak argituko
dituana.

(Mai gaineke gurutzearen
aufian, belauniko).

Idazu, Jesús, indafa, zure naia egin dezadan nik.

(Beste piska batez egon-da,
zerpait aditzen ba-lu
bezala).

¡Ixo!....

Noen otsa da?...

Nor ote dabil or?...

(Deituz)

¡Bat, bat; ia onutz!

(Zakur artzanua agertzen da).

¡Au lana!

¡Efemun ez ba-litz!...

Leiotik poliki poliki begi
tuko du ta, oso lafi).

¡Bera da.... Indianua da!... ¿Zer egin?

(Iñasi ta Maritxu deitu nai
ta, ezin du. Añ lafi dago).

Eziñ det otsegiñ. ¡¡Jesus!! ¡Gorde nazazu!...

BIGAREN AGEÑALDIA

(Aña, M. ta Efemun.
Efemun indianu aberats bat da).

Erremun

(Azpiko koñu edo eskañera mutur-etik edo, ikusten ez dala
otsez). ¡¡Aña Mari!!
(Bersolarien antzera)

«Emen bizi da, bañendik dago
bere kaiolan txortxola,
bakarik dago aztafika ta
ufumada dariola.
Ufumad'orek ala pistu du
nere bañuan su gaña,
goiko bañuan piztutzen dunez
tximistak egur igaña».



Aña M.

¡Éremuntxo! Jaungoikoagatik, zuaz ortik!...

Erremun

«¡Nola nai dezu, Aña Mari,
nik emendik alde egitea,
ez baitut zu ikustea
beste lanik ekañ!...»

Aña M.

¡¡Zuaz ortik, azkar!!...

Erremun

¿Beti zuk, atzeakā neri? Beti muxin, Aña Mari?

Aña M.

Nork du kulpa? Nekatua nago esatez...

Erremun

Nork du kulpa? Oixe bera diot nik,
ezin etsiz bai nago zu ikusi gabe!

Nork du kulpa? nerau ez ba-naiz jabe

nere biotzaren?

Gaixua preso ba-dago

maitetasunaren?

Aña M.

Eskerdun naukazu, ta beragatik eskatzen dizut;
bakian utzi nazazu.

¡Éremun, zuaz ortik!

Erremun

Ez da geigo biguntzen biotz gogor ori?

..... ¡Ederki!

Ondaindu bear didazu onez edo gaiztoz
maitetasunezko zor aundi ori...

Aña M.

Ez onez, ta ez gaiztoz. ¡Ea!.. Alde ortik!

Erremun

¡Odol beltz... zifala!.. Ez au izutzen nere asar-
reak?.. Ez dakin, ate ori ostikoz jo-ta...

Aña M.

¡Asi, asi, nai ba-dezu!.. ez naiz ikaratzen.

Erremun

¿Nai den iriki atea?..

Aña M.

Ez diot nik aterik inñori zabaltzen.

Erremun

Esan zan baietz onez-onean. Bestela!..

Aña M.

¡Ezet, bada, ezetz!..

Erremun

¿Ez?.. (¡Danba! ateari ostiko).

Aña M.

¡E, zu!.. Geldi or! Ez nago ez bakarik!

Erremun

¡Gezura ori!.. Dal-dalian ago!..

Aña M.

Ementxe daukat nik nere laguna. Ta ez ba-zera ortik ondatzen!..

Erremun

Atso zar... Sorgin itxusi!.. Inpernuko... petrala!

Aña M.

(Suturik). Zer?... Erakutsiko diat nik orain bertan, nola gazte baten afean itzegin bear den!... (Deituz). ¡Nere artzanua! Ozka, indianu ofi!.. Ozka⁶ ozka!.. (Zakur saunkak). Ofi, ofi!.. (Piska bat egon-da). Ez; ez niteke ofela bizi!... Alderdi guzietatik inguratzten naute etsai galgafiak... (Zerurontz begira). ¡Agindu ezazu, Jauna; zabaldu zure eskuak, eta garai batean itxas aserian bezela, atertuko dira ekaitzak nere biotzean!... (Leiotik begituz). Patxi gizarajua, beti zintzo!... Axekari dabil, pardelak ezin jasoz.

Oartu ote da?... ¡Au lana, au lana!...

Ara zein pozik dijoazen, txio-txioka, lizar txoriak!.... ¡Oien azkatasuna!... Ori edertasuna! Txori pifin-polifak, txori maitagafiak, ¿nora zuazte ain ariñ ta ain alai?

Laixter ni ere zuen antzera,
Ariñ ta alai,
Itsazoz beste aldera
Juango naiz.

(Bâdatoz.... Amak eman dió saferan ur bedeikatua semeari.... Sartu dira).

IRUGAÑEN AGEÁLDIA

(Josetxo, seme zafena, apez jantzian. Aña Mari, Joxe Martin ta Katxalin).

Aña M.

(Sartu-atera egin ondoren). Onatx, Josetxo, zure gela.

Josetxo.

(Goitik bera gelari begituz). Emen, ezagun da, Aña Mari ibili dala.

Bâdirudi mojetxeko gela. (Gurutzea ikusten du, ta ařengandik begiak kendu gabe, esango du eldu dana). ¡Zerfen ederki!

Aña M.

Dezakegun pixka...

Josetx.

Nik nai bezela, Aña Mari.

Aña M.

Ala bearko!.. Edergařirik ez, bařal..

Josetx.

¿Edergařiak, Aña Mar? Ori dagon tokian (Gurutzeaz), ez da ederařagokorik.

Aña M.

Alegia, Josetxo. (Aldegiten du).

Josetx.

(Bakarizketan). Beti, beti aŕean. Edozein tokitan
nagola, aŕean jartzen zait. Sartu bezin laister,
iduritu zitzaida zerbait esan nai...

Bâdakit, Jauna, bâdakit. ¡Ixo!

(Eztiro).

Ondo ditut aditzen,
Ez baitidazu aspalditxo
Beste gauzik esaten.
Egafiz nago. Arimen egafia...
¡Zaude, zaude! Laixter, biar ba-litz obe,
Nere alegin guziak izango dira
Zure egafi ori itzaltzen.
¿Nola ez..., baldin nerau ere
Egafi berak ba-nauka itotzen?

Asia ta Aprika, Ozeania ta Amerika bazter
urîñetan lo daude, lo aztun, eriotzezko îlunbetan.

An Mixiolariak ixuri zuten
ugari odol beroa
¡Nork esan, Kristoren fedez
utzi zutenak lepoa!
Ta... ¡Nork esan aŕitu gabe
misolari nagusiaren,
gure Xabier Deunaren
lan miragafiak!

Trabankor, Peskeria, Malabar, Goa ta Melia-

pur, Maluka, Mairu, ta Molukas ugartetan. Japon'en, Damagutxi ta Benego... ¡Autsiapur!

An Kristorentzat irabazi zituanak

Zenbat ote diraden, jakin nai duanak...

Konta itxas erzetan diraden ondarak,
Kõnta, ausartzen ba-da, zeruko izafak.

Ala guziz ere ¡oi, au ikara! Asian bakafik bã
dira bederatzitan eun mĩloi federik ez dutenak....
Ogei ta amabi mĩloi urtero iltzen dira Jesus eza-
gutu gabe, larogei mĩla egunero, ia lau mĩla or-
duero. ¿Egariz zaudela?

(Liburu pĩla eskutan duala agertuko da Aña Mari).

Josetx.

Ama Kontxexik eta eřetore Jaunak, ia zertan
zauden, Aña Mari?

Aña M.

Ait'amak ez dute ezeren beřirik, ta nik ezin
esan...

Josetx.

Onuzkoan, amari esan diot laister utziko gaitu-
zula.

Aña M.

Ta amak, zer?

Josetx.

¡Negar! Jakiña zan.

Aña M.

Ori bera neri ere gertatzen zait. Nonbaitetik

asi nai ta... ezin. Korapiloa edo eztañan jartzen zait.

Gogofegia da, Josetxo, aldapa au neretzat.

Josetx.

Jaunaren laguntzarekin igaroko degu efaz.

Aña M.

Alderdi guzietatik.. etsaiak. Ez niteke onela bizi.

Josetx.

Ofela ukitzen ditu Jaunak, beretzat auturik dazkanak. Baña garaia da, ta oraintxe amaituko dira zure kezkak. (Otsez). ¡Aita... ta ama!... Al ba-ditezke, etofi!

LAUGAÑEN AGEÑALDIA

(Lengoak, Katxalin
eta Joxe Martin).

Katx.

¡Aña Mari, Aña Mari! Ez diguzu beintzat biotz-ondoko txar-txaña eman!... Nork esan?... Guk txikitatik artu, ta azi zaitugu; guk, oñak txitatxoa bezela, geren egalpean gorde zaitugu. Eguzkipean guretzat zu bezelakorik ez, ta Patxi-koren emastetzat berexi zaitugu. Zertanbait utsegeteko belduñez, zuri begira beti.... ¿Ta orain?... ¡Ai! Ez dakit zer esan!

Jox. M.

¡Danak, bat-batian galdu!...

Jose tx.

Bereganako nai geiegiak, ori du! Ta, batez ere...
Beoik ondo dakite. Bakoitzak bere azkatasuna,
beti du maite.

Katx.

¡Zorigaiztoko azkatasuna!...

Jose tx.

Gaitzera makurtzen ba-da!
Baña, onera etziten ba-da....
¡Gure arimen edertasuna!
¡Azkatasuna! Doi eder-ederetako, or goitik
datorkigun miragafizko ontasuna.
¡Azkatasuna! Ori da jangoikotasun bere-beretik
jauzitako txingafa.

Jox. M.

Olakotan, Jose txo, ez daki batek zer esan.

Jose tx.

Olakotan, gogofa da. Nork ez du ikusten?
Baña etzaio odolari utzi bear itz egiten.
Danak zor dizkiogu Jaunari, baita geok ere.
Emanak kendu nai ba-ditu, nork du kalte?
Bat ikusten det itsu jaiotzez, eta diot: ¡A!
Onek ez ditu ikusten izafak dizdiratzen;
Au, ez du gu bezala, eguzki edefak alaitzen;
Onentzat egun argia beti betiko gaba da.

¡Jauna!

Zer gaitz egin zezaken, oraindik jaio ez ba-zen?

Ta .. Zer on egin nezaken, ori ez bezela, begiargi, ni sortu ba-nitzen?

¡Zenbat ontarte zuk neri!..

Mundu zabalean itsu asko arkitzen dira. Ta eguzki eroak alaitzen ez dituztenak ain erukigafin baldin ba-dera, ¿zenbatez geigo izango ez dira, arima aldetik, federik gabe, itsuan daudenak?

Irutan eun miloi besterik ez Katolikoak, fede egizkoan daudenak! Oien artean gaude gu.

Jaunak, gain-gañeko mesedea, lenbizikotatik bere Legea guri eman zigun aditzera. Orain guri eskatzen digu Fede gabeko gaixoen alde, Bere odolez erosi zuan Zeru eder artan sartu ditezen, otoitz egin dezagun eta lan.

Artarako deituak diranak, Jainkuagaz danak utzi-ta ufutira badijoaz. ¡Zorionekoak, bide ortan dabiltzen oñak! Zori onekoak, aiei laguntzeko zabal dauden eskuak!

Baña... Baldin bidea isten ba-diete...

¡O, zorigaitz gaiztokoak!

Katx.

(Afiturik). Baña...

Jox. M.

¡Zer gerta da emen!..

Josetx.

Jainkoak autu du beretzat Aña Mari; ufutira deitzen du, Txinara. Bere laguntzarekin Zerurako arimak irabazitzera, ta beoien baimena nai du.

Jox. M.

Aña Maril!.. Ene alaba!... Ortarako ba-da, oso pozik ematen dizut. ¡Biotz-biotzetik!

Katx.

Nastua nabil, eroa nunbait...

Efuki nitzaz, ene Jesus, barkatu neri; baita zuk ere, Aña Mari.

Zer esan nuan? zer gerta zait?...

Ezdaukat zu beste alabarik, baña gaizki da nere esakera. (Zuti). Gauza guzien Jabe altsua zu zera-ta, Zeru-lufêan Zure gogoa egin bedi, Jauna! (Begiak estaliaz aldegiñen du. Atzetik Aña Marik berdin).

Jox. M.

¡Au aixial!.. Lengo gogorazio beltzak... jua di-ra. Iduripenak besterik etziran.... iduripen uts utsak!

Josetx.

Ni naiz orain nasturik nagona. Zer gogorazio ziran, aita, gogorazio beltz oiek?..

Jox. M.

Ez aipatzea da, onena.

Josetx.

Patxikogatik, edo?..

Jox. M.

Bai, ta ez. Patxikori lendik esana zeukan Aña Marik etzuala ezkontzeko asmorik; baita Patxi etsirik.

Efemun, elizatik igesi dabilen indianu aberats
orek, buruz galdurik iduki gaitu.

Beti atzetik!.. gaur ere inguru ontan ikusi du
Patzik; beldur giñan azkenerako, artaz Aña Mari
zaletu ta noizbait, gu utzirik, ezkonduko ote
zan...


Bidean, beriz, laister utziko gaituala esan baiti
guzu... ¡Lafi giñan!

Josetx.

Ofa, bada, etsaiak nola zirikatzen gaituan.

ESTALKIA





IRUGAÑEN EKITALDIA

(Txinan daude. Estalpe txatar batean).



LENBIZIKO AGEÁLDIA

(Aita Baratze, ostota abaréz egindako oigogor batean etziñik; gaxo dago. Kontxesi, monja dominika jantzian).

Aita.

¡Miñik ez, baña odolak, odol izakiñak danbaka jotzen nau buruan!

Kontx.

¡Ta, ori arintzeko ere, sendagairik ez!...

Aita.

Pitxi belar artatik ba-lego?...

Kontx.

¿On egiten al dio, aita?...

Aita.

Egafia kendu bederik....

Kontx.

Gertu daude, ta bânua biñetzerá (Bâdijua).

BIGAREN AGEÁLDIA

Aita.

¡Au lana!... Emen, nere biziaren zatirik edefena utzi det!...

Emen, gogoz eta legez, nere lanik aundiena egin det!.... Emen nere eskuz bataietu, Jesu-Kristoren fedea erakutsi ta uste ez bezelako Kristau-taldea bildu det!

Zenbat aldiz begiratu gabe
eguzkiaren bero gogofari,
ez pixti gaiztoen puzoiari,
ibar zelaio, aldenik alde,
igaro ditut arima zale,
alai ta atsegin, azkar ta bero,
gurutze au, (Mixiolariena) orain ta gero
ori ta beltzen Jaun ta Jabe,
egi ta fedez, ikusi naiez.

Eritik efi,
egundañotan
Jesusen befi
entzun ezai,
eman nai...

Eta orain?.. danak, bat-batean, galdu dira!..
¡O, agintari ori... Jauntxo oiek... Deabruaren
aideak!

Antioko Eregek Jerusalemen egin zuena, etsai
gaizto oiek egin digute emen!..

(Isil piska batez egon-da, goibel).

¡Au ondarena, au zorigaitza,
au izugarizko ekaitza!..

¡Gorotoaren ordu txarretan,
garaxika... irintz eta párez.

Elizan sartu dira indárez,
artu dituzte esku beltzetan

Jaunaren ontziak,
ta aietan edan dituzte
edari zikiñak.

¡O, gain-gaṇeko zorigaitza!..

¡O, izugarizko ekaitza!..

Ez det damurik, ez,
nere osasunaz, nere jait'etxeko,

Baratze erekaldeko

ontasun aifuaz...

Artalde gaixoa, jai!

artzairik gabe,

ta artzaïen orde,

denen erdi-erdian

otso gaiztoak zai!..

Ori ikustean

biotza ufutzen zait!..

¡Ene seme maite-maitiak,

umezurtz erukigafiak!..

IRUGAREN AGEÁLDIA

(Aita Baratze, Kontxesi, ta Satur—gero—xeago—, txinar jantzian).

Kontx.

¡Aita Baratz!..

Aita.

Ta... aingeruok!.. Erbestekuak,
nunpaitekoak dirala-ta...
bertakoak ez dirala-ta...
emen baztertuak!...
Gure ikastetxe ta gaxotegiak... utsik.
Umeak —¡Esan dezaket nik!!—
eskatzen ogia,
eta opatzen ez
eman ál tzakenik:
gaxuak osagaia,
ta aiñ gutxirik!

Kontx.

¡Aita, ume ta gaixo oien izenian ez beza geiago
estutu buru ori! Utzi, bada, aita, utzi kezka ori...
¡Onatx edari goxua! On egiten dio ta artu bear
du... (Aitak artuko du piska bat). Beste pixka bat, nai
al du?

Aita.

¡Alpefik da!.. Jaunaren orduak ez du oraindik jo

bere deia. Ordu ori etofiko da ta berak ekafiko du ilunbe oientzat argia; bitartean, atsekabea izango da gure ongilea. Gure onerako nonbait zeruak bialtzen digu oraingo nekea; jaso beaŕean gaude, ta jaso dezagun bere izenean... (Beste egonaldi laburtxo bat) Ongi irabaziak dauzkat neke ta samintasun guziak. Zigortu nazazu, Jauna, baña oek... zure usotegiko uso zuri ok, gorde... gabiraiaren atzapafetatik. ¡Jesus... Zure odolagatik gorde izkidazu, Jesus, gorde! Oroitu zaitenola ta txinaŕak, Maometar, protestant, bai ta Masoiak azken orduan gaxotegitik zerura bialtzen lagundu didaten...

Kontx.

Jangoikoagan uste osoa daukagu, aita. Ez gutatik beldurik izan.

Aita.

Atsegin aundia artzen det ausardi ta lerdentasun ori ikusten dutenean, zuen biotzeko zintzoera ta fede bizia argiro erakusten dit-eta. Baña etzaitzte, Aña Mari bezein, itxuan ibili... (Ixiltxâgo).

Itxuan... esan det? ¡Nork daki!..

Orain baño len, Jainkoak bâdaki

indartsuak ere, aularen bidez,

lur jo arteraño garaitzen...

Ez da agiri... ¡ta garaia bâzuen!

Kontx.

¡O! Aña Mari, gure ama, besteok ez bezelakoa da.

Aita.

Beldur naiz...

Kontx.

Etoñiko da. Ez beantetsi.

Aita.

Buruzai ori gogofa da.

Kontx.

Bigunduko du Amak.

Aita.

Diruz ez ba-da... ez ta ofenik biguntzen; protestantiak daukate urez erosia.

Kontx.

Ala da, baña Jainkoaren grazia,...

Aita.

Altsua da. (Satur agertuko da paper pila eskuetan duala).

Satur.

Oraingo aldian, Aita, *Baratzefekaldeko* beñiak bâditugu.

Aita.

(Paperak artu-ta, begiraldia ematen dien bitartean). O, *Baratzefekaldeko* nere anaiak, euskaldun on ta Europa'r guziak... Ba-lekite nun eta nola gauden... Ba-lekite zenbat eta zenbat euren Otoitz eta limosnakin egin lezaketen...

Egalak nai nituzke adieraztera juateko, gu bezin beartuak daudela berak ere lan aundi oni ekitera:

gu emen, gure âlegiñean, aiek euren otoitz ta diruz, an.

Misiolariak bear dira, baña, andik ez ba-gaituzte laguntzen, gure neke ta lanak... ¡Utsak izango dira!..

¡Ixol!... Bâditeke? Zer ari naiz irakurtzen!... Ametsetan ote nabil?.. ¡O, ezta ametsa, ez!

Eldu zaigu garaia: Guzialdunak oraintxe bete du gure naia. ¡Aintza *Beari* zeruan ta biotz onekoai bakea lufean! ¡Satur! Zuaz laixterka emengo buruzaiaren etxera. An da Aña Mari ta nolanai dela, onuntz erakafi; eman zeorék ekafitako eskutitzen befi ta biok azkar etofi. (Bâdijoa Satur).

Beñi onak, ene alaba, on-onetakoak.... ¡O, nere eñitar biotzeko!... ¡O, nere afeba. Aña Mari! Nere gozagafi izateko Aingeru, zerutik jetxia.... ¡Aña Mari, Aña Mari!...

Kontx.

(Sartu atera egiñaz). Bertan da.

Aita.

¡¡Au aixia!!

LAUGAÑEN AGEÑALDIA

(Lengoak, eta Aña Mari, monja dominika jantzian).

Aña M.

¡Josetxo!... Beantetsirik zaude, al ezta? (Esku batean musu eman nai dio).

Aita.

Ez diozu nere eskuari musu emanen, nik zure oñari eman baño len. (Jeiki nai du, baño ez ta gauza).

Aña M.

Nora zuaz Josetxo?...

Aita.

A, ez naiz gauzal... Berdin da; zure oiñ berein-katuak zapaltzen duten autsari.... emango diot.

Aña M.

Zer naizela-ta, zaude Josetxo?...

Aita.

Ixilik idukiañen, zure egitsari urenak asi dira loretzen, Aña Mari. Eskutitz orek esango dizu, nik baño obeki. (Kontxexiri ematen dio, esanaz). Zuk, Kontxexi.... irakufi.

Kontx.

Aita Baratz agurgañi ori: Egun aundia da gaurkoa Neretzat. Biotza, pozez, gañez egiñik, agertu nai

dizkizut, Aña Mari, zure afeba ta nere ongileari zor diozkatena; lenengorik, nere osasuna. Gaxo negon, sendakiñak nere biziaz etsirik zeuden. Osasun oneko baten zañetako odolak bakafik, nere zañetara igaro-ta, betetzean, piztu zaiteken nere bizia ta osasuna itzuli. Non opatuko-ta, Aña Marik,—lotsaten nau esateak ere—noizbait nerezat nai izandu nituen biotza, arima ta guzia, Jainkoari eskeñiak zauzkala-ta, bere odoletik bear adiña eman zidan. Bigafen, nere arimaren bizia. Gaur emengo aurtxoak, oien artean nere alabatxo bakafak, lenengoz artu dute Jauna, ta oiekin batean bai ta nik ere, ainbeste urtên bafuan. Aña Marien otoitz ta eskutitzari zor dizkiot nere biotzeko poz ta atsegin aundi oek.... Jakin dezala, Aita, nere aingeru on orek!... Eta.... gutxi da, baña, gaur, emengo aurtxo ta.... lañien limosnaz gañera, mila batzuk bialtzen dizkiot, ta... ez orain ta ez gero, diru premian ez beintzat egon. Zere eskuari musu emanez!...

Efemun.

Aña M.

¡O, zeñen miragafiak Jaungoikoaren bideak! Ez ta ordu erdi bat; mundu onetakorik ez-ta, Agintariari eskeñi diot, ez dakit nik zenbat diru..., eskatu ditan guzia; gure azkatasunagatik; len bezela Jaungoikoaren alde lan egiten uzteko ta... begira nundik!...

Kontx.

Beofengatik ez ba-litz, Ama, zer egingo ote
guk?..

Aña M.

Ez, Kontxesi, ni ez, baizik Jangoikoaren esku
zabala dabil emen... Berari eskefak eman bear
dizkiogu oraintxe... ¡Aita Baratz!.. (Aita ixil) ¡Jose-
txo!.. (Ixil beriz ere).

Kontx.

Gaitzen batek eman dio!..

Aña M.

¡Josetxo!.. Berotasun aundia dauka!...

Aita.

(Besoak jaso-ta).

¡O! Eldu dira, eldu dira
ontzi galantak Españitikan,
Misiolariz beteak.
Añera ta añera, azkar ta ariñ,
sututzen baiñu fedeak
eta Kristoren izen aundia
Munduan zabal naieak.
Alperik dira
odei aztunak beztutzen,
alperik ostots danbatakoak
eta oñazturak sortutzen,
ur-olatiak burukatzen,
lur ta itxasuak ikaratzen.

¡¡Leku Kristori!!..—esaten dute
ur zelai azken-gabeak.
¡¡Leku Kristori!!..—erantzun dute,
lau alderditan, aizeak.

(Azkenduko dute abestuz)

Be-nedic-tus De-us, be-ne-dic-tum no-men a-nec-tum ci-us



Be-ne-di-c-tus le-us Chri-stus, ve-rus De-us et ve-rus ho-mo.



Be-ne-dic-tum no-men le-us; be-ne-dic-tum Coe-le-stis Sa-cra-men-tum.



Be-ne-di-c-tus le-us in ae-ni-ti-a-mo-el-ra-tis Sa-cra-men-to



Be-ne-dic-te magna Meter De-i Ma-ri-æ sanc-tis ai-ma



Je-ne-dic-tum no-men Ma-ri-æ Vir-gi-nis et Ma-tris Be-ne-di-cita sit



san-cti e-lus et la-me-n-ta-bi-la Con-cep-ti-o-



Be-ne-di-cas De-us in An-gi-lis et in San-ctis cu-jus



Fi-li-æ et Fi-li-um



¡Goretsi Jainkoa!
¡Goretsi bere izen santua!
¡Goretsi Jesu Kristo, egiz Jainko t'egiz gizona!
Goretsi Jesu-izena!
¡Goretsi bere Biotz guziz santua!
¡Goretsia Jesus, Aldareko Sakramentu Santuan!
¡Goretsi Maria, Birjin eta Amaren izena!
¡Goretsia biz bere Sortze garbi ta orban gabea!
¡Goretsi Jainkoa bere aingeru ta santuetan!
Alaxe, Alaxe!

ESTALKIA GELDIRO

“La Iglesia y el Euskera,,

Obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa
y de cultivarla

Por Miguel de Inchaurreondo y Arriarán

Liburu txiki ta poliñ onek bádakarzki 101 oñalde, bikaiñ ta paper edefean idatsiak. Pezeta bat baizik ez tu balio ta Euskaleñiko liburutegietan, batez ere, *Toñent eta Aramendía*’renean (San Saturnino, 4 - Pamplona. España) saltzen da.

Egunkariak (periodikoak) liburu ontaz iritzi bikañak eman dituzte. Ara, ementxe, beroyetatik batzuk:

«Contra el modesto parecer del señor Inchaurreondo, que ya en la misma dedicatoria califica su obrita de «cosa... menguada», no dudamos por nuestra parte en afirmar, aparte de su indiscutible mérito, su inestimable utilidad práctica, tanto para el magisterio vasco, como para el clero, al que principalmente se dirige». (Donosti’ko *El Pueblo Vasco*’tik).

«Liburuñoaren ondaferat, Iruñar irakasle jaunak aipatzen ditu eskuarazko irakurgai geyenak, bai eta gure izkuntzan ala gure izkuntzaz idatsi edo idasten duenatarik hainitz. Berak dio baztefetan utzi dituela, nai-tez, zenbeit. Guti, nik uste, biziki

guti. Eskualde huntako apezgai eta.... zenbeit apez eskualdunek ere bálukete zer ikas *La Iglesia y el Euskera*, irakurgai aberats, bihotz altxagafian». (Bayona'ko *Eskualduna*'tik).

«Vigorosamente escrito, y calurosamente sentido, este librito es una excitación radiante al sacerdocio para que aprenda, utilice y cultive el euskera». (Donosti'ko *La Constancia*'tik).

«Estimamos la publicación del folleto de grandísima utilidad y conveniencia, no solo para los sacerdotes, sino para todos los navarros, amantes de sus tradiciones». (Iruñ'eko *El Pensamiento Navarro*'tik).

«Efi izkuntza erabiltzeaz zerbait arduratzen diran guziak irakufi bear dute idazti au; gai onetzaz ez baita oraindikan lan osoago ta garbiagorik agertu». (Donosti'ko *Argia*'tik).

«En este sentido (conservación y fomento del euskera) merece grandes plácemes el docto presbítero Don Miguel Inchaurredo Arriarán, profesor de Euskera en el Seminario de Pamplona, por su concienzudo folleto, *La Iglesia y el Euskera*, en el que demuestra con gran copia de razones, divinas y humanas, la necesidad y obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y cultivarla, principalmente el clero». (Madrid'ko *La Ciencia Tomista*'tik).

Método Práctico del Euskera

POR MIGUEL DE INCHAURRONDO

El por qué de mi Método

- Práctico del Euskera -

Después de cuatro años largos que he dedicado a la ardua tarea de enseñar el euskera a mis queridos estudiantes del Seminario de Iruña, me he lanzado, por fin, a publicar este *Método Práctico del Euskera*. Siéndome tan querido el euskera, la lengua de mis padres, ansiando anhelantemente que el futuro clero de Navarra le posea, he llamado ardua, sin embargo, su enseñanza en la actualidad. Y no es que el euskera sea lengua difícil. Siendo el latín padre del español, es mucho más difícil para nosotros que el euskera. Pero carecemos todavía de métodos adecuados para su enseñanza y estudio.

Esto, por otra parte, no es nada de extrañar. Nada se hace repentinamente, ni el mundo de los seres amentes, ni en este nuestro de los inteligentes.

Ahora bien; siendo tan reciente el cultivo serio y formal del euskera, ¿qué tiene de extraño que sus métodos sean rudimentarios y sus gramáticas imperfectas?

De éstas, hay algunas bastante aceptables; de métodos, que son más convenientes y prácticos en

una clase como la mía, donde la mayoría de los discípulos ignoran en absoluto la lengua, andamos peor todavía.

Por eso, me he decidido a publicar este *Método Práctico del Euskera*. En él va encerrada la experiencia que he adquirido en mis cuatro años de su enseñanza y lo que me ha parecido más práctico y conforme al genio de nuestros escolares, extraído de los métodos extraños.

En las primeras Lecciones, hasta que vaya haciéndose cargo del verbo, será conveniente a todo el que quiera aprender euskera la ayuda de un experto Profesor. Más tarde, podrá estudiarlo él sólo, cuidando de ejercitarse todos los días con alguna persona que lo hable perfectamente. Aún así, debe advertirle, al principio, que hable muy despacio y pronunciando bien las palabras, porque el vasco, que no ha podido estudiar la Gramática de su lengua, tiene el defecto de contraerla sin piedad y de comerse muchas veces, las sílabas finales de las palabras.

De esta manera, todo el que esté dotado de un mediano talento, aplicación y constancia, podrá aprender en poco tiempo la lengua de nuestros padres.

Precio de la obra: **7,50** ptas. en rústica, y **8,50** encuadernado.

PEDIDOS: *A la Librería de Torrent y Aramendía, San Saturnino, 4 — PAMPLONA.*

EUSKAL ERI MAITEA

*(«Ai, ai, ai, mutila, txapela gorria»
bezela abesten (kantatzen) da)*

Euskal Efi maitea, azkar esna adi!
esker on emateko gure euskerari!
Ai, ai, ai, mutilak, gure euskerari!

Euskal Eri maitea, aŕen jeki adi!
euskera itzultzeko gure eŕiari!
Ai, ai, ai, mutilak, gure eŕiari!

Euskal efi zintzoa norik etzaitu maite!
Guzion biotzean, beraz bizi zaite!
Ai, ai, ai, mutilak, beraz bizi zaite!

Euskaldun aur gaztea, azkar aundi adi!
Euskera maitazteko gure eŕiari!
Ai, ai, ai, mutilak, gure eŕiari!

Aurkoak bezala, euskaldun gazteak!
izan bear dezute euskera zaleak!
Ai, ai, ai, mutilak, euskera zaleak!

Euskaldun gazteriak batëra zaitezte!
gure eña zaintzeko eder eta gazte!
Ai, ai, ai, mutilak, eder eta gazte!

Nork lezake euskera sekulan gaitzetsi?
Beñ ere euskaldunak, euskera ez utzi!
Ai, ai, ai, mutilak, euskera ez utzi!

Euskeraren etsaia, euskaldun bera da!
euskera, gaitsetzi-ta, baztertutzen ba-da!
Ai, ai, ai, mutilak, baztertutzen ba-da!

Euskaldun txakak dio: euskera ostikatu!
Euskerak ez al du, ba, gure eña altxatu?
Ai, ai, ai, mutilak, gure eña altxatu?

Euskalefiko esia euskera dezute!
Esia botaz gero, galduak zerate!
Ai, ai, ai, mutilak, galduak zerate!

Eutsi, eutsi, gazteak, zeren euskerari!
Euskerak eusten dio erlijioari!
Ai, ai, ai, mutilak, erlijioari!

Gure efiko txokotan ez euskera galdu!
Etxe, kale menditan euskaldun azaldu!
Ai, ai, ai, mutilak, euskaldun azaldu!



Gure efitako giltzak gure eskutan daude;
baño galtzera goaz, erne ez ba-gaude!
Ai, ai, ai, mutilak, erne ez ba-gaude!

Euskalduna, euskera, dezu giltzaria!
Bere eskuz gorde zagun gure ataria!
Ai, ai, ai, mutilak, gure ataria!

Euskal oiturak dira aberastasuna!
Etzagun galtzen utzi gure ondasuna!
Ai, ai, ai, mutilak, gure ondasuna!

“Euskeraren Adiskideak,,

—Euskeraren Adiskide oyek zer nai ote dute?

—Eztakizu?— Ara, ba, oyen asmoa: «*Lagunarte onen eginkizuna izanen da, balez ere, euskera erakustea, gailzen ez uztea, biztutzea ta edatzea (zabaltzea), oyen Eraginzañe Buruei obekienik zaizkien bidez*».

—Ez ote datoz politika egitera?

Etzazula ofen bildurik izan: ara berek diotena: «*Lagunarte onek baztartzen du edozein politikazko gogoeta, yokera, ta baita edozein itxura ere, batez ere Españako batasunaren kaltezkoa ba-litz.*»

—Ordun euskerari iraunazteko datoz?

—Euskerari ta baita ere «*lengo oitura (kostumbre), jostabide, jolasketai, ta jokuei; lengo gure musika, kanta, dantza ta pilota jokua biztuerazteko*».

—Ta lagunarte ortan nornai sartu al liteke?

—Lagunarte onen asmo (xede) oyek bete nai di-tuena izanezkeroz, bai.

—Zer egin bear dugu ortarako?

—Ortarako bi bide dituzu; bata da diru apur bat eman urtero Lagunarte ofen asmotarako, ta bestea lana egin Lagunarte ofen asmotarako.

—Zer diru eman bear da?

—Gutxiena, urteko 6 pezeta; baño asko dira ur-teko 10, 15, 24 eta geyago pezeta ematen dute-

nak. Apez ikasle ta beste ikasleak ere, ordea, urtean pezeta bat bakafik.

—Urtero orienbeste emateko eztugu, ordea, dirurik!

—Ala ere, izan zaizke Euskeraren Adiskide ta agun-kide onenetakoa, ala ere.

—Nola, ordea?

—Oso eraz. Ortarako aski duzu lagun *laguntzale* edo *langiletako* zure izena eman.

—Ta zer egin bearko nuke?

—Euskeraren Adiskideak euskal-jaien bat zure eri aldean egin nai dutenean, edo beste noiz edo noiz, zuk lagundu dezayekezun lanen batean, bereilagundu beren asmo edefak aufera (aitzinera) eramaten.

—Ortara sartuko nintzeke ni ere, Lagunarte ortan.

—Eska zazu, ba, bertatik, zein lagun saletan jartzea nai duzun esanez, ta azpiko sarbide ori, izenpetu-ta, bialdu Dirutzaiñaren etxera.

LENDAKARIA:

JENARO LARRATXE

Navas de Tolosa, 15, 3.^o—PAMPLONA

DIRUTZAIÑA:

BERNARDINO TIRAPU


Plaza de San José, 4—PAMPLONA



SARBIDEA

Nik jaunak,
..... 'ko Eskualdean
..... 'ko erian kalean,
..... garenean bizi naizenak, «Euskeraren
Adiskidetan» sartu nai nuke, urtean
pezeta ordaintzekotan.

(Emen izena ta izengaiña)







Imp. Viuda de Ricardo Garcia &
Sarasate, 15 - Pamplona

Δ
6